

emakumeak, batzen gaituenetik-mujeres, desde lo que nos une-femmes, de ce qui nous rejoint

Saturday, April 08, 2006

Adierazpena

"Ahotsak" Emakume Taldeak, Bakearen Aldeko Emakumeen Ahotsak, bere Adierazpena publiko egiten du, euskal bake prozesuaren ekarpen gisa. Bere osotasunean irakur ahal izateko, klika (sakatu) ezazu "testu osoa" izeneko lotura. Adierazpenarekin bat egin nahi baduzu, "comments" loturari sakatu eta bidal eizaguzu zure iruzkina (izen-abizenak eta NAN-CNI -EHNA zenbakia erantsiz). Blogger atalean izena eman gabe eduki ezker, "besteak" edo "ezezagun" ezizena aukera zenezake parte hartzeko eta zure iruzkina argitaratzeko.

Agiri hau sinatzen dugunok ideologia, tradizio eta sentimendu ezberdinak ditugun emakumeak gara; banatzen gaituena alde batera utzi eta batzen gaituenetik abiatuta, eta modu pertsonalean, bake eta adiskidetzaren bila urratsak esploratu nahi ditugu.

Agiri honekin ez dugu ez ezer ez inor ordezkatu nahi; gure asmo bakarra, bakoitza dagoen lekutik, egungo egoerari bultzada ematea da, bai eta konponbidea bilatze lanetan laguntzen saiatzea ere, aurreiritzirik eta baldintzarik gabeko elkarriketa abiapuntu ona dela baieztatuz, pertsona guztien eskubideen errespetua ere den moduan.

Itxaropenezko orain eta etorkizun baten alde lan egiteak amankomuneko militantzia, geurea alde batera utziz, aintzat hartzea behartzen gaitu: bakearen aldeko militantzia, hain zuzen; izan ere, bakeak saboteadore ugari ditu beti gatazka guztietan eta argi izpi bat ekartzea ezinbestekoa da.

Beraz, emakumeok bakearen aldeko eragile aktibo izan behar dugula uste dugu, bai eta gure herrian ireki beharreko itxaropenezko prozesu berrian parte hartu behar dugula ere.

Gaur egun, eta bizi dugun gizarte eredu kontuan hartuta, gure herriko bizitza politikoan gizon eta emakumeon papera ez da bera. Hala ere, eta guri ere dagokigun gatazka politikoaren ondorioak pairatzen ditugun heinean, konponbideak bilatzerakoan emakumeok ere izan behar dugun partehartzea eta protagonismoa aldarrikatzera gatoz. Konponbidearen subjektu aktibo izan behar dugu, orain arte gertatutakoaren subjektu izan garen bezala.

Horregatik hiru premisetan oinarritzen den etapa berri bat irekitzeko aukera ahalbidetu nahi dugu:

1.- Bakea erdiestea eskakizun kolektiboa eta lehentasun politikoa da. Denon lana da, eta ez da soilik eta bakarrik edozein motatako bortxakeria

About Me

Name: **ahotsak**

[View my complete profile](#)

Previous Posts

[Declaración](#)

[Déclaration](#)

